

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3916

HUTS-ZUZENKETA, ondoko EBAZPENarena: «Ebazpena, 2017ko apirilaren 27koa; horren bidez, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako diru-laguntzen deialdia argitaratzen da, 2017. urterako, Euskadiko enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.»

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako akatsen bat atzeman da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2017ko apirilaren 27ko Ebazpenean, zeinaren bidez argitaratzen baita lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako diru-laguntzen deialdia, 2017. urterako, Euskadiko Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. Argitara eman zen 2017ko maiatzaren 2ko EHAAAn, 81. zenbakian. Hori dela-eta, zuzendu egiten da:

2017/2165 (54/52) orrialdean, III. Eranskinean, B atalean, hau esaten duen lekuan:

b.1	Zentroaren sintesi-adierazlea	10 puntu
-----	-------------------------------	----------

Hau esan behar du:

b.1	Sintesi-adierazlea	10 puntu
-----	--------------------	----------